| Lurralde : invest. espac. | 45 | 2022 | p: 333-362 | ISSN 0211-5891 | ISSN 1697-3070 (e) |
|---|---|---|---|---|---|

# GENTRIFIKAZIO PROZESUEN GENERO IKUSPEGIKO IRAKURKETA BIBLIOGRAFIAREN BERRIKUSPENA

## MIKEL JIMÉNEZ IRURETAGOYENA
## ELENA MARTÍNEZ TOLA

Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari
Buruzko Ikasketa Institutua (HEGOA)

Ekonomia Aplikatua Saila
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
UPV/EHU
Agirre Lehendakariaren Etorb., 83,
48015 Bilbao, Vizcaya

**Laburpena**

Mendebaldeko hiri gehienak gentrifikazio-prozesuak jasaten ari dira eta ondorioz, segregazio sozioespaziala areagotzen da. Hori dela eta, prozesu hauek sakon aztertzeko beharra sortzen da, haien ondorioak aurreikusteko eta berbideratzeko. Azterketa hauetako batzuk, genero-ikuspegi intersekzionala erabiltzen dute. Honek, klasearen, arrazaren, generoaren... etabarren arteko harreman estua ulertzen laguntzen digu. Literaturaren berrikuspen honetan, 44 azterlan aztertzen dira gaiaren inguruan eztabaida handiagoa sortzeko, existitzen den bibliografia ezberdinaren artean loturak sortzeko eta ikerketa-ildo berriak proposatzeko helburuarekin.

**Hitz-gakoak:** gentrifikazioa, generoa, intersekzionalitatea.

# LECTURA CON PERSPECTIVA DE GÉNERO DE LOS PROCESOS DE GENTRIFICACIÓN: REVISIÓN BIBLIOGRÁFICA

**Resumen**

La mayoría de las ciudades occidentales están sufriendo procesos de gentrifcación, resultando en una mayor segregación socioespacial. Por ello, se crea la necesidad de estudiar estos procesos en profundidad para prevenir y reconducir sus consecuencias. Varios de estos estudios utilizan una perspectiva interseccional de género, la cual nos ayuda a entender la estrecha relación entre la clase, raza, género... En este análisis de la literatura se analizan 44 estudios con el objetivo de crear un mayor debate en torno al tema, crear vínculos entre la distinta bibliografía existente y proponer nuevas líneas de investigación.

**Palabras clave:** gentrificación, género, interseccionalidad.

# A GENDERED READING OF GENTRIFICATION PROCESSES: A LITERATURE REVIEW

**Summary:**

Most Western cities are undergoing some gentrification processes, resulting in greater socio-spatial segregation. Therefore, there's a need to study these processes in depth to prevent and redirect their consequences. Several of these studies use an intersectional gender perspective, which helps us understand the close relationship between class, race, gender... In this literature review, 44 studies are analyzed with the aim of creating a greater debate around the subject, creating connections between the different existing bibliography and proposing new lines of research.

**Keywords:** gentrification, gender, intersectionality.

## 1. Sarrera

1960ko hamarkadaren amaieran, Ruth Glassek gentrifikazioa kontzeptualizatu zuen Londreseko biztanleria mugimendu batzuk azaltzeko (Glass, 1964). Momentu horretik aurrera, fenomeno honen dinamika eta arazoak hobeto ulertzen saiatu diren ikerketa teoriko eta praktiko ugari aurki ditzakegu (Smith, 1979; Lees, 2002; Duque Calvache, 2016; Cheshire, 2018; Ugarriza & Gurrutxaga, 2020). Gentrifikazioa, inguru degradatuetan aurrera eramaten diren erreparazioen eta etxebizitza zein jarduera ekonomikorako eraikuntza berriak eraikitzearekin batera sortzen den higiezinen espekulazioaren ondorioz, biztanleria mugimenduak sortzen dituen prozesua bezala definitu dezakegu. Mugimendu

hauek, orokorrean, nahiko berdintsuak dira hiri guztietan: erdi-mailako (edo goi-mailako) biztanleria inguru "berrituetara" mugitzen da, bertan aurretik bizitzen den biztanleriaren desplazamendua bultzatuz (normalean biztanle behartsuagoak). Gentrifikazioaren prozesua hiru pausutan laburtzen da: abandonua eta estigma, espekulazioa eta garestitzea, eta azkenik kanporaketa eta merkaturatzea.

Gentrifikazioaren kontzeptua birformulatzen eta garatzen joan da, ondorioz, gaur egungo gentrifikazioaren kontzeptualizazioan neoliberalismoa, kapitalismoa eta globalizazioa bezalako kontzeptuak barneratzen dira (Smith & Hackworth, 2001; Smith, 2002; Nuevo López, 2021). Gentrifikazioa bezalako prozesu sozioekonomiko, demografiko eta urbanistiko batean, era askotariko eragileak parte hartzen dute. Hortaz, eragile hauek gentrifikazioan daukaten eragin eta eginkizunari buruzuko analisiak egitea beharrezkoa da, bai eta prozesu honek agente horiengan daukan eraginari buruz.

Klasea da herritarren zaurgarritasuna gehien baldintzatzen duen gentrifikazioaren osagaia, beraz, interes handiena sortzen duen analisi-kategoria da. Hala ere, azken hamarkadetan agerian geratu da arraza eta generoa ere erabakigarriak direla gentrifikazioa pairatzeko arriskuan dauden talde zaurgarrienak zeintzuk diren identifikatzeko eta aztertzeko. Honen inguruan esan beharra dago literatur hutsune bat aurkitu ahal dela. Gentrifikazioaren inguruko literatura-tradizio zorrotzan, klasearen problematika kontuan hartzen den auzi bakarra izaten ohi da (Bondi, 1991). Hala ere, generoak gizarte harremanak baldintzatzen ditu, eta modu honetan, prozesu espazialak baita. Pobreziaren feminizazioa eta arrazializazioa, kristalezko sabaia, zaintzaren ekonomia eta zahartzaroaren feminizazioak emakumeen bizitza ekonomikoki, sozialki eta politikoki baldintzatzen dituzten egiturazko arazoak dira. Klasearen, arrazaren eta generoaren arteko erlazio intersekzionala ukaezina da (Lees, 1999, 2008; Patch, 2008; Curran, 2017; Badger, Bui, & Gebeloff, 2019). Nolanahi ere, gentrifikazioari buruzko ikerketa gehienek generoa gutxiesten eta baztertzen dute analisiaren oinarrizko osagai gisa, literaturan hutsune handia utziz.

Gentrifikazioaren literaturan aurki dezakegun beste hutsune garrantzitsu bat, existitzen diren artikulu eta ikerketen artean dagoen harreman txiki eta kontraesankorra da, bereziki generoaren inguruan. Lantzen diren gaiak askotarikoak dira eta ikerketa askok ez dira haien artean aipatzen ezta erlazionatzen ere. Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen da gentrifikazioaren inguruko ikuspegi feministaren bibliografiaren azterketa kritikoa egitea.

Aipatutako literatura-hutsuneak direla eta, ikuspegi mugatua duen literatura baten aurrean gaude. "Systemic review" baten bidez, artikulu honetan gentrifikazioan aplikatu ahal den genero-ikuspegiari buruzko literatura berrikusten da ikuspegi intersekzional batetik abiatuz, gentrifikazioan eragina daukaten osagaiak eta eragileak erlazionatuz eta argudioak eta ikerketa-ildo berriak proposatuz. Artikulu honetan 44 artikulu sistematikoki berrikusten dira. Prozesu hauek, aukeratutako literaturaren informazio garrantzitsuena kontrastatu, osatu eta moldatzeko aukera ematen dute. Ondorioz, artikulu honetan proposatzen den berrikuspena

garrantzitsua da bai teorikoki bai praktikoki, gaiari buruzko lan esanguratsuenen eta garrantzitsuenen arteko lotura izatearen garrantziaz harago.

Literaturaren berrikuspen honen bidez hiru ekarpen nagusi egiten dira. Alde batetik, hutsune garrantzitsuak dauzkan literatura bat osatzen laguntzen da, lehen banaka edo talde txikitan aztertzen ziren kontzeptu eta eragileak elkarrekin lotuz. Klaseko/generoko dikotomiako eztabaidan ere ekarpenak egiten dira, baita gentrifikazio azterketetan genero-ikuspegia bultzatzen ere. Azkenik, ekarpen garrantzitsua egiten da begirada intersekzionaleko gentrifikazioari buruzko literaturan, klase eta generotik at, arraza, sexualitatea, genero identitatea eta adina bezalako baldintzaileen garrantzia azpimarratuz.

Beharrezkoa da ikuspegi feminista batetik gentrifikazio-azterketak bultzatzea, hirietako gune degradatuenak urbanizatzeko, berrurbanizatzeko eta birgaitzeko momentuan genero-ikuspegi handiagoa izateko momentuan, bai eta politika ekonomiko eta sozialen jardun-ildoak ezartzerako momentuan (Bondi, 1999; Curran, 2017). Oinarri bibliografiko zabal batek eta metodologia zorrotz batek argumentu eta ideia esanguratsuak eskaintzen dute prozesu horretan. Nahitaezkoa da hiri-errealitatearen ikuspegi zabalagoa duten azterlanak bultzatzea, eta hori da artikulu honen ekarpen handiena: analisi intersekzionalak duen garrantziari buruzko eztabaida.

## 2. Genero eta gentrifikazioaren auziaren egoera

Denboraren poderioz, hiri-teoria eta hiri-politiken diseinua, gizarte eta teknika-zientzietan nagusi diren korronte nagusiek gidatu dute, non genero-ikuspegia ez den kontuan hartu duela oso gutxira arte. Dena den, ezinbestekoa da azken hamarkadetako hirien eraldaketa aztertzea metaketa eredu fordistatik postfordistarako trantsizioaren esparruan, horrek dakarren lanaren banaketa sexualaren aldaketarekin batera.

Metaketa eredu fordista, familia nuklearrean, eta rol eta zereginen banaketa tradizionalean oinarritzen da. Ondorioz, produkzio eta ugalketa-jarduerak garatzen diren espazio fisikoetan ere oinarritzen da. Familia nuklearraren eredua garrantzitsua da, ez horren adierazgarritasunagatik (batez ere familia zuri, burges eta heterosexualei dagokielako), baizik eta gizarte osoaren erreferentziazko eredu bilakatu delako (Pérez Orozco, 2007). Lehen azpimarratutako lanaren banaketa sexualak, antolaketa soziala eta espaziala zehazten du. Ondorioz, eredu horren arabera garatu diren hiriak, gizonezkoen beharrak ezarritako ekoizpen eta mugikortasun-beharrei erantzutera bideratzen dira, horiek baitira lan-merkatu fordistaren protagonista nagusiak (van den Berg, 2017).

Metaketa-eredu fordistaren krisiak eta eredu postfordistarako trantsizioak egiturazko aldaketak ekarri zituen hainbat esparrutan, eta horien artean, lanaren banaketa sexualean eta hiri-funtzioetan izandako aldaketak nabarmendu behar dira. Pasaden mendeko 70/80ko hamarkadetan, emakumeak lan-merkatuan sartu ziren, modu subordinatuan, ez zelako aurreko lanaren banaketa sexualaren hausturarik gertatu. Emakumeek, ugalketa-lanaren

arduradun nagusienak izaten jarraitu zuten. Hala ere, espazioa harreman sozialen eta genero harremanen bidez eraikitzen den heinean (Massey, 1994; van der Berg, 2017), produkzio, ugalketa eta kontsumo beharren birdefinizioa gertatzen da. Hiri-espazioak behar horiek asetzeko gai izan beharko da.

Generoa eta gentrifikazio prozesuen arteko erlazioak aztertzeko moduak bilakaera nabarmena izan du 1980ko hamarkadatik gaur egunera arte (Rose 1984; Bondi 1991, 1999; Bondi eta Rose 2003). Sakizlioglu-k (2018), gentrifikazio-prozesuak generoaren konstituzioan daukan garrantzia azpimarratzen du. Gauzak honela, generoaren ulermen kategorikoa albora uzten da eta gizarteko botere-harremanen inguruan egituratutako gizarte-harremanen multzoa bezala ulertzen hasten da.

Normalean errenta bikoitzeko familiek gentrifikazio prozesuetan daukaten eragina aztertzen da, irisgarritasun eta zerbitzu erabilgarri handiagoak dituzten hiri-espazioen eskatzaileak direlarik. Espazio hauek lanaren banaketa sexualerako erosoak dira, zeinetan emakumeak lanaldi bikoitza egiten jarraitzen dute. Era berean, lan, kultura eta aisialdi aukerak eskaintzen duten espazioak dira, emakume profesional gazteen eskakizunetarako oso egokia. Hau da, espazio gentrifikatuek emakume batzuen beharrak asetzen dituztela eta gentrifikazioaren onuradunak izan ahal direla. Auzo gentrifikatu hauetan, etxebizitzaren prezioarekin bateragarriak diren errenta ertain-altuak dituzten biztanleriarekin aurkitzen gara. Ondorioz, 1980ko hamarkadaz geroztik, gentrifikazioaren inguruko eztabaidak ohiko etxe patriarkalaren desagerpenean eta lanaren banaketa sexual tradizionalaren aldaketetan jarri dute arreta (Markusen, 1981; Rose, 1984).

Hala ere, prozesu hauek fronte zabalago batetik begiratu behar dira. Izan ere, emakumeen, familien edo haurren eskakizunen protagonismo handiagoarekin bateragarria den hiri-ikuspegia integratzen duten bitartean, bazterketa garrantzitsuak eragiten dituzte. Epe ertain eta luzean, emakumeak eta adingabeak hiriko biztanleria pribilegiatuan sartzeak, desplazamendu nabarmena ekar dezake talde kaltetuenetan, horien artean: emakume arrazializatuak, diru-sarrera baxuko emakumeak, etab. Bondi-ren (1999) arabera, gentrifikazioa, modu orokorrean, auzoetako klase, genero eta espazioaren elkarrekiko konstituzioaren dinamikari arreta jarriz bakarrik uler daiteke.

Goiko argudioak, korapilatsua izan arren, analisi intersekzionalak egitea (klase-genero-arraza) beharrezko dela agerian uzten du. Gentrifikazio prozesuen kasuan, klasearen eta generoaren arteko harreman konplexu eta dinamikoan zentratu beharra dago, generoa analisi-kategoria bat gehiago bezala hartzen duten ikuspegietatik haratago joanez. Arrazaren kategoriarekin egoera berdina daukagu, beraz, gaur egungo mendebaldeko hirien errealitate migratzailea kontuan hartzea premiazkoa da (Sakizlioglu, 2018).

## 3. Azterketaren protokoloa eta azterketen hautaketa

Artikulu honetan, genero ikuspegia barneratzen duen gentrifikazioaren inguruko literaturaren berrikuspen sistematikoa egin da. Horretarako, berrikuspen protokolo bat sortu da, eta, horri esker, azterlan nahiko adierazgarriak aurkitu ahal izan dira. Azterlan horiek, geroago, azterketa xehatu baten subjektu izan dira.

Lehen esan bezala, eskuragarri dagoen literatura ez da oso zabala, hala ere, artikuluen eta azterketen hautaketa nahiko esanguratsua izan da. Horrela, lan hau, generoaren gaia jorratzen duten gentrifikazioaren azterketa teorikoak eta genero ikuspegitik gentrifikazio prozesuen azterketa praktikoa egiten duten azterketak aukeratzera mugatu da.

Literatura bilatzeko erabili den hitz gako nagusia “gentrifikazioa” izan da. Terminoarekin batera, “genero-ikuspegia”, “generoa”, “feminista” eta “emakume/ak” bezalako hitz gakoak ere erabili dira (ingelesez, gazteleraz eta euskeraz). Bilaketa hau Google Scholar plataforma erabiliz egin da, “allintitle” komandoa erabiltzen eta hitz gakoen arteko konbinazio ezberdinak egiten. Zitazioen aukera ez da erabili, gentrifikazioaren eta generoaren inguruko artikulu guztiak jadanik hitz gako hauek dituztelako haien izenburuetan. Zitazioen aukera erabiliz, berez generoaren auzia garatzen ez duten gentrifikazioaren inguruko eztabaidan aritzen diren ikerketekin eta gaiarekin zerikusirik ez daukaten beste artikulu batzuekin aurkitzen gara.

Azpimarratu behar da ez dela denbora tarterik ezarri, gentrifikazioaren eta generoaren arteko loturak aztertzen duen literatura zaharrena 1989koa baita eta literatura esanguratsuaren bilaketa gehiago murriztuko lukeelako. Bestalde, ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz idatzitako artikuluak kontuan hartu dira. Dena den, literatur guztia ingelesez argitaratuta dago, ez dago generoaren eta gentrifikazioaren inguruko auziaz aritzen diren euskerazko artikulurik. Badago gazteleraz argitaratutako artikuluren bat, baina hau ingelesez argitaratuta dago ere. Oro har, hautatutako iragazkiak erabiliz, literatura esanguratsuaren bilaketa maximizatzen saiatu da azterketa objektua mugatzeko apropostzat jotzen diren inklusio eta esklusio irizpideak erabiltzen.

Inklusio-irizpideen barruan gentrifikazioaren analisian genero-ikuspegia erabiltzen duten artikulu eta ikerketak daude, baita gentrifikazioaren aurrean emakumeen egoerari buruz zehazki hitz egiten dutenak ere. Hortaz, generoaren auzia jorratzen ez dutenak edo funtsezkotzat hartzen ez dutenak baztertzen dira.

Literaturaren berrikuspen honetarako ez da beharrezkoa generoan esklusiboki zentratu den bibliografia bat izatea, baina generoa kontuan hartu behar da ikerketan zehar. Ikuspegi feminista honen inguruan formulatuta ez dauden arren, gentrifikazioan generoari buruzko arazo zehatzak aztertzen eta aipatzen dituzten lanak jasotzen dira. Bide horretatik, generoaren auzia oso labur jorratzen duten ikerketak eta artikuluak aukeraketatik kanpo geratzen dira.

Ondorengo taulak, literatura berrikuspen honetan erabilitako inklusio eta esklusio irizpidea guztiak aurkezten ditu:

Taula 1: Errebisiorako inklusio eta bazterketa irizpideak

| Inklusio irizpideak | Bazterketa irizpideak |
|---|---|
| Generoaren auzia kontuan hartzen duten gentrifikazio artikuluak. | Ingelesa, gaztelania edo euskara ez diren hizkuntzetan argitaratutako artikuluak. |
| Genero-ikuspegia duten gentrifikazio-prozesu aktiboei buruzko behatokiak eta azterlanak. | Generoaren gaia labur eta ez funtsezkotzat hartzen duten azterlanak. |
| Behar bezala deskribatutako metodologia zorrotza duten artikulu praktikoak. | Generoaren eta gentrifikazioaren arteko lotura edo problematika aztertzen ez duten artikuluak. |
| Arrazaren, generoaren eta klasearen arteko elkargune bat ezartzen duten gentrifikazioari buruzko azterlanak. | Sarrera itxian argitaratutako liburuak, artikuluak, aldizkariak... Eskuragarri ez dauden artikuluak |
| | Intersekzionalitatea baztertzen duten eta topiko arrazista, matxista eta LGTBfoboetan jausten diren ikerketak. |
| | Jakintza zabaltzen duten plataformetan argitaratu ez diren artikuluak eta inolako metodologia, helburu eta ondoriorik deskribatzen ez dutenak. |

**Iturria: propioa.**

Artikulu honetan ikuspegi intersekzionala erabiltzen da, beraz, klaseaz gain arraza/etnia, LGTB komunitateari eta beste gaiak jorratzen dituzten ikerketak sartu dira. Jakina, genero ikuspegia erabili beharko dute. Azkenik, publikoarentzat eskuragarri ez dauden liburu eta artikuluak aukeraketatik kanpo geratzen dira.

Horrela, iragazkiak aplikatu ondoren, 1989 eta 2021 artean argitaratutako 69 emaitz inguru aurkitzen dira. Dena den, bilaketan erabili diren hitz klabe ezberdinen konbinazioen emaitzen artean, artikulu eta ikerketa batzuk errepikatzen dira. Baita ere, esan beharra dago artikulu guztietan ez dela genero ikuspegi argirik aplikatzen. Hala ere, atera daitezkeen eztabaidak eta argudioak nahiko esanguratsuak dira errebisio honetan kontuan hartzeko.

"Taula 1"-ean agertzen diren irizpideak jarraitzen, zenbait artikulu aukeraketatik kanpo geratzen dira. Artikulu batzuk generoaren auzia ez funtsezkotzat hartzen dute eta generoaren inguruan proposatzen duten hurbilketa genero ikuspegi intersekzionalaren kontrakoa da. Gainera, artikulu batzuk generoari eta gentrifikazioari buruz hitz egiten dute baina ez dute hauen arteko erlaziorik egiten. Hau da, haien aztergaia generoarekin, gentrifikazioarekin eta beste kontzeptu batzuekin zerikusia daukatela, baina berez ez dute generoaren eta gentrifikazioaren arteko gorabeherak ez ezer jorratzen. Beste batzuk, ordea, alemanieraz, portugeses edo beste hizkuntz batzuetan argitaratuta daude. Aipagarria da baita ere, ikerketa eta liburu batzuk sarrera itxian argitaratuta daudela, ez daude eskuragarri autoreek artikuluak kendu dituztelako, plataforma esklusiboetan bakarrik daudelako, artxiboak hondatuta daudelako edota enbargatuta daudelako. Azkenik, artikulu formal baten estruktura ez daukan (sarrera, metodologia, helburuak, eztabaida, ondorioak etabar ez daukan artikulua) eta jakintza zabaltzen duten plataformetan argitaratu ez den artikuluren bat baztertu da. Inklusio irizpideen barruan dauden eta bazterketa irizpiderik betetzen ez dituzten 44 artikulu, ikerketa edota liburuekin geratzen gara.

Artikulu gehieneak teorikoak dira, baina kasu praktikoak ere aurkitzen dira. Azken hauek, gentrifikazio-behatoki gehienen modu berean diseinatu dira. Ikerketa mota hauetan oso erabiliak diren gentrifikazioa aztertzeko adierazle batzuk proposatzen dituzte, kasu honetan, generoa ardatz nagusi gisa daukatelarik. Emaitza estatistikoak objektiboki aurkezten dira eta ondoren genero-ikuspegia aplikatzen da datuen interpretazioak egiteko.

Azkenik, esan beharra dago hautatutako ikerketen gehiengoa aldizkari espezializatuetan argitaratutako artikuluak izan direla. Beste batzuk unibertsitateek argitaratu dituzte. Ospe handiko argitaletxeetan argitaratutako liburuak eta zenbait hiri eta probintziatako administrazio publikoek (gentrifikazio-prozesuak dituztenak) idatzitako artikuluak ere aurki ditzakegu.

## 4. Literaturaren azterketa

Artikulu gehienak, generoaren auziaren analisi teorikoak dira, emakumeek gentrifikazioaren biktima eta gentrifikazioaren bultzatzaile bezala daukaten papera aztertzen dutenak. Hau oso interesgarria da, klasea transbertsala dela erakusten du, eros-ahalmen handiagoa duten emakumeek, baliabide gutxiago dituzten beste emakumeei eragingo dien gentrifikazioa bultzatu dezaketela erakusten baitu. Emakume zuri eta zuriak ez direnen arteko desberdintasunei buruzko ikerketak ere badaude. Azterketa horietako gehienak Ameriketako Estatu Batuetan egin dira eta gaur egun jarraitzen duten egitura sozioekonomiko arrazistak eta segregazioaren ondare sozio-espaziala agerian uzten dute, bai Estatu Batuetan, bai mendebaldeko beste herrialde batzuetan.

Bestalde, azpimarratu beharra dago aurkitutako artikulu askok gentrifikazioaren analisian genero-ikuspegiaren inguruan egon den interes eskasari eta lan pobreari buruz argudiatzen

dutela. Azken hau agerian uzten da aipatutako lanetan eta artikuluen bibliografian, ikerketa-lerro finkaturik ez dagoela erakusten baitute. Genero ikuspegia daukaten gentrifikazioari buruzko lan praktiko gutxi daude edo, behintzat, generoaren gaia jorratzen dutenak. Horrez gain, lan horiek gentrifikazioari eta emakumeei buruzko ikerketa nahikorik ez dagoela salatzen dute. Ondorioz, literatura berak gaiarekiko interes eta lan gutxi egon delaren aurrean aurkitzen gara.

Hautatutako ikerketek, beren ikasketa-objektuak erreferentzia bibliografiko ezberdinetan oinarrituta aztertzen dituzte eta horren ondorioz ondo oinarritutako argudioak lortzen dira, bai eta ikuspuntu zabal bat ere. Gentrifikazioaren alderdi desberdinak aztertzen dira, bere ondorio negatiboak klase txiroenetan eta bere ondorio positiboak klase aberatsetan zehaztuz. Azterketa batzuek, gainera, arraza, klasea eta generoa eztabaidatzen duten elkarrekiko sentikortasun intersekzionala aplikatzen dute, hiru auzi horien inguruan beharrezkoa eztabaida esanguratsua sortuz.

Jarraian aztertuko diren gentrifikazioari eta generoari buruzko 44 ikerketak, lehen aipatutako inklusio irizpide guztiak edo batzuk bete dituztenak izan dira, esklusio irizpideetako bat ere ez betezen dutelarik. Ikerketa horietako batzuk, etengabeko genero-ikuspegia aplikatzen dute eta beste batzuk, aldiz, emakumeek gentrifikazioarekiko duten zaurgarritasuna une zehatz batzuetan soilik argudiatzen dute.

Ardatz nagusiak klase, genero eta arraza dira. Hala ere, esan bezala, artikulu honetan ikuspegi intersekzionala erabiliko da. Beraz, pertsonen zaurgarritasun sozioekonomikoaren areagotzean eragina duen edozein agente hartuko da kontuan. Ondorioz, “sexu-orientazioa eta genero-identitatea” agentea gehitu zaio, aipatutako zaurgarritasun horretan eragiten baitu, eta zenbait artikulutan aipatzen eta aztertzen delako.

Sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen gaiak, eta orokorrean LGTB ikerketak, gentrifikazioaren ikuspegi intersekzionala indartzen laguntzen du. Izan ere, orientazio sexualak eta genero-identitate ez normatiboak dituzten pertsonek, gizarte eta erakundeen abandonu handiagoa jasan dute historikoki, eta haien bizitzak lan-prekarietate eta baztertze sozioekonomikoaz markatuta egon dira. LGTB komunitateren eta generoaren inguruko kategoriaren barruan sexu-lana barneratu da, ikerketa LGTB gehienetan sexu-lanaren inguruan aritzen direlako eta sexu-lanean zentraten diren ikerketak beti LGTB komunitatea kontuan hartzen dutelako. Multzoketa hau eztabaida esanguratsuagoa lortzeko aproposagoa dela erabaki da.

Era berean, “zahartasunaren” agentea ere sartu da, batez ere adineko pertsonek (emakumeak batez ere) gentrifikazio prozesuetatik eratorritako ondorio negatiboak jasateko joera handiagoa dutelako. Adineko pertsonek erosmen ahalmen txikia izan ohi dute eta, gainera, higiezinen espekulaziorako eta gentrifikaziorako erakargarrienak diren hiriguneetan bizi ohi dira. “Dibertsitate edo ezgaitasun funtzionala” agentea gehitzea ere begietsi da. Hala ere, gaiari buruzko literatura ia ez da existitzen eta gutxi landuta dago. Agente hau aztertzeak ikerketa-ildo interesgarri berri bat ireki lezake.

Oro har, gentrifikazioaren aurrean biztanleen zaurgarritasuna handitu dezaketen agenteak hartu dira kontuan. Ondoko taulan aztertutako bibliografia guztia agertzen da, aztertu beharreko ardatz edo auzi nagusiaren arabera ordenatuta:

Taula 2: Errebisioarako kontuan hartu diren ikerketak eta artikuluak.

| Azterketa | Klase | Genero | Arraza | LGTB komunitatea eta sexu lana | Zahardadea eta guraso bakarreko familiak |
|---|---|---|---|---|---|
| (Ajuntament de Barcelona, 2020) | ● | ● | | | ● |
| (van den Berg, 2012) | ● | ● | | | |
| (Bailey, 2008) | ● | ● | ● | | |
| (Bondi, 1991) | ● | ● | | | |
| (Bondi, 1999) | ● | ● | | | |
| (Bors, Pugh, Tinkler, & Trushin, 2017) | ● | ● | ● | | |
| (Bruckmann, 2019) | ● | ● | | | |
| (Butler & Hamnett, 1994) | ● | ● | | | |
| (Cahill, 2008) | ● | ● | ● | | |
| (Chapuis, Gravari-Barbas, & Jacquot, 2015) | ● | ● | | ● | |
| (Charslwell, 2017) | ● | ● | ● | | |
| (Cross, 2021) | ● | ● | ● | | |
| (Curran, 2017) | ● | ● | ● | ● | ● |
| (DeSena, 2018) | ● | ● | | | |
| (Dighton, 2019) | ● | ● | ● | | |
| (Dizon, 2022) | ● | ● | ● | | |
| (Doan & Higgins, 2011) | ● | ● | | ● | |
| (Duryea, 2006) | ● | ● | ● | | |
| (Dybska, 2011) | ● | ● | | ● | |
| (Gierczyk, 2020) | ● | ● | ● | | |
| (Goldenberg, Amram, Braschel, Moreheart, & Shannon, 2020) | ● | ● | | ● | |
| (Kern, 2009) | ● | ● | | | |
| (Kern, 2012) | ● | ● | | | |
| (Lees, 1999) | ● | ● | | | |
| (Listerborn, 2020) | ● | ● | | | |
| (López, Rodríguez, & Escapa, 2022) | ● | ● | | | ● |
| (Maier & Gilchrist, 2022) | ● | ● | | | |
| (Markwick, 1995) | ● | ● | | | ● |
| (Mills, 1989) | ● | ● | | | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| (Ortiz-Guitart, López-Gay, Sales-Favá, & Solana-Solana , 2021) | • | • | | | • |
| (Patch, 2005) | • | • | | | |
| (Patch, 2008) | • | • | • | | |
| (Pilgeram, 2019) | • | • | • | | |
| (Quamie, 2019) | • | • | • | | |
| (Rose, 1989) | • | • | | | |
| (Sakizlioglu, 2018) | • | • | | • | |
| (del Socorro Pérez Rincón Fernández, 2017) | • | • | | | |
| (Spain, 2014) | • | • | | • | |
| (Tilk, 1997) | • | • | | | |
| (Varol, 2022) | • | • | | | |
| (Ye & Vojnovic, 2018) | • | • | | | |
| (Warde, 1991) | • | • | | | |
| (Wright, 2013) | • | • | | • | |
| (Wright, 2015) | • | • | | • | |

**Iturria: propioa**

"Taula 2"-n ikusten den moduan, artikulu eta ikerketa guztiak klasea eta generoa hartzen dute haien aztergai ardatz nagusitzat. Arrazaren auzia kontuan hartzen duten artikulu batzuk ere daude. LGTB komunitatea eta zahartzaroaren inguruko ikerketak, ordea, ez dira hain ohikoak. Dena den, artikulu hauek ikuspegi intersekzional sendoena daukaten ikerketak dira, bereziki Curran-ek (2017) egindako ikerketa.

### 4.1 Klase eta generoa

Gentrifikazioa klase kontua da, baina klasearen barruan gizon eta emakumeen arteko esperientziak nahiko desberdinak dira. Aldaketa sozioekonomiko eta urbanistiko garaikideek, emakumeak gentrifikazioaren eragile eta biktima potentzial bihurtu dituzte. Polarizazio sozial hau handiagoa izan daiteke emakumeengan gizonezkoetan baino (Bondi, 1991). Horregatik, emakumeek, gentrifikazioaren aurrean ahultasun berezia izateaz gain, agente gentrifikatzaile gisa bezala ere jokatzen dute. Gentrifikazioa bultzatzeko papera mantentzen duten emakume hauek, klase ertaineko emakume ezkongabe eta profesionalak dira, eta potentzialki gentrifikagarriak edo gentrifikatzen ari diren auzoetara mugitzen dira.

Gai honi buruz literatura nahiko zabala aurki dezakegu, emakumeak agente gentrifikatzaileak bihurtzeko prozesua nola eman den azaltzeko zenbait ikerketa egin baitira (Bondi, 1991; Butler et al, 1994; Marwick, 1995; Ye, 2018). Azterketa hauek, diru-sarrera baxuko auzoetara mugitzen diren erdi-mailako emakume profesionaletan zentratzen dira.

Emakume hauek beren lantokietatik gertutasun handiagoa bilatzen dute, hirigunetik gertu egoteko interes handia izateaz gain. Ondorioz, kontsolidatutako auzo gentrifikatuetan emakumeen presentziaren hazkunde nabarmena ikus daiteke (Warde, 1991; del Socorro Pérez Rincón Fernández, 2017; Ye, 2018; Bartzelonako Ajuntament, 2020; Ortiz et al, 2021). Dena den, bizi-kalitate hobearen bilaketa horrek, auzo horietan bizi diren emakume pobreenen bizimoduaren okerketa dakar. Gentrifikazioa klase bat beste batetik lekualdatzeko prozesu bat da eta, hau, emakumeen lan-merkatuan izandako aldaketekin zerikusia dauka (Warde, 1991). Dena den, emakumeen ahalmen ekonomikoaren gorakada, behar bat eta askapen feminista bat bezala ulertu behar da (Curran, 2017).

Erdi mailako emakumeen kontsumoak, hirien ingurune industrial batzuk eraldatu ditu, gentrifikazioa bultzatuz. Auzo zentralagoetarako mugimendu hau, batez ere, hiri-inguruko auzoek emakumeen beharrak asetzen ez dituztelako gertatzen da (DeSena, 2018).

Gentrifikazioa pairatzen ari diren auzo batzuen hiriko bizitza (edo bizitza urbanoa) gizonezkoentzat zuzenduta dago, hau da, hauen interesen eta kontsumoaren arabera modaltu dela. Hala ere, klase ertaineko emakumeen biztanleria berria, auzo hauetara mugitzen da, eta, bertan, emakumeek zuzendutako negozio berriak irekitzen dira. Auzoaren eguneroko bizitzaren aldaketa hau oso nabarmena izaten da gizonen eta emakumeen arteko bereizketa patriarkal argia dauden hiri eta auzo tradizionaleetan, non familia heterosexualaren eta gizonen balioa azpimarratzen den (Bruckmann, 2019).

Honekin, auzoko gizarte-talde jakin baten barruan ez dauden emakumeentzako espazioak eta sozializatzeko gune seguruak sortzen dira, bereziki beste emakume gazteentzako zuzendutako emakume enpresa-sortzaile gazteen eskutik (Patch, 2008; Kern, 2012; Bruckmann, 2019). Kafetegi, denda edo, orohar, espazio berri hauek, auzoaren dinamika aldatzen laguntzen dute, arau tradizional eta erlijioso asko zalantzan jartzen. Azken honek beste emakumeen eta marjinatutako beste pertsonen kaleko segurtasuna areagotzen laguntzen du (Patch, 2005). Dena den, espazio hauek emakumeak kalean presentzia handiagoa izaten laguntzen duen bitartean, gentrifikazioa bultzatzen dute.

Ikuspegi feminista batetik, hiru-inguruko auzoko bizitzak, emakumeak mugatu, isolatu eta are zapaldu direlari buruz hitz egiten da. Ondorioz, emakume askok suburbioak utzi eta hirietako hiriguneetara joatea erabakitzen dute, produktu eta zerbitzu, eta aukera ugari eskaintzen baitituzte. Hiriek, emakume batzuentzat emantzipazio-aukerak eskaintzen dituztela esaten da, lekualdatzera behartuta izan diren beste emakumeen aukeren truke (Bondi, 1999; Mills, 1989). Esan bezala, biztanleriaren mugimendu honekin, gentrifikazioa sustatzen da (DeSena, 2018).

Rosek (1989) eta Warde-k (1991), bakarrik bizi diren klase-ertaineko emakume profesionalak neurrigabeki auzo gentrifikagarrietara mugitzen direla erakusten dute. Ondorioz, emakume hauek agente gentrifikatzaile bihurtzen dira. Autoreen arabera, emakumeen enplegagarritasun hobeagoa eta emakumeek lan munduan daukaten egoera

hobeagoa gentrifikazio prozesuen funtsezko osagaia bihurtu da. Oro har, emakumeek, batez ere bakarrik bizi diren klase-ertaineko profesionalak, zeresan handia daukate hirien berregituraketan.

Hala ere, klase ertaineko emakumeak gentrifikazioaren eragilerik handienak eta bakarrak direla pentsatzea akats handia da. Profil hau, literaturaren zati batean lantzen den moduan, ama bat, aita bat eta seme-alaba bat eta bi artean osatutako klase ertaineko familia heterosexualei dagokio. Familia horietan, ustez gaindituta zeuden zenbait dinamika patriarkal erreproduzitzen ari dira (Rose, 1989; del Socorro Pérez Rincón Fernández, 2017). Amek, haien lana, etxeko eta ugalketa zereginekin uztartu behar dute. Gainera, umeen zaintza normalean haien gain jausten ohi da (Mills, 1989; Curran, 2017; Ortiz et al, 2021).

Umeen zaintzaren ildotik, Listerbornek (2020) dioen bezala, "emakumearen" eta emakume heterosexualaren ugalketaren marketina auzo txiroenetako gentrifikazio-prozesuak indartzeko eta defendatzeko erabili da. Izan ere, auzo gentrifikatu askotan amentzat zuzendatuko denda berriak irekitzen dira. Are gehiago, amen arteko sozializaziorako kafetegiak eta aisialdirako instalakuntzak agertzen dira. Amatasuna kontsumo estrategia bihurtu da (Curran, 2017; Listerborn, 2020).

Esan bezala, erabilera-nahasketa eta dentsitate handiagoa duten hiriek, emakumeentzako aukera emantzipatzaileak eskaintzen dituzte, emakumeen parte-hartzea sustatzen dutelako soldatapeko lanetan, eta eguneroko zeregin desberdinak uztartzen errazten dutelako (Gierczyk, 2020). Gainera, hiri eta auzo berritsuak segurtasun handiagoa izaten ohi dute eta emakumeentzako erakargarriagoak dira (Tilk, 1997). Hemen Kern-ren (2009) urbanismo garaikidearen eta eraikuntza-berriko gentrifikazioaren inguruko lana aurkitu ahal dugu. Autorearen arabera autonomia eta independentziaren bilaketa, emakumeen emantzipazioa eta metaketa estrategia kapitalistarekin nahasten da. Hala ere, ez dago emakumeek eraikuntza-berriko gentrifikazioa bultzatzen dutelaren inguruko frogarik. Are gehiago, familia heterosexualen etxeko dinamikak genero-rol tradizionalez markatuta jarraitzen dute eta emantzipazio hori ez da oraindik guztiz gertatu (Rose, 1989; Bruckmann, 2019; Ortiz et al, 2021).

Beste alde batetik, hirien hipermaskulinizazio eta hiperfeminizazio kontzeptu eta dinamikak aurkitzen ditugu. Rotterdam-eko kasu zehatzean, Van den Berg-ek (2012) hiriaren irudi hipermaskulinizatua aldatzeko ahalegina egiten ari dela dio. Udal administrazioen hiri agendak, Rotterdameko hiria emakumeei espazioak eta aukerak eskaintzen dien hiri bezala aurkeztu nahi dute.

Egileak, helburu-emakume hauek "profesionalki orientatuta dauden emakumeak, indibidualistak, kosmopolitak, materialistak eta are hedonistak" direla azpimarratzen du. Hau da, ez dute emakume guztientzat hiri espazioak egin nahi, baizik eta profil zehatz bat betetzen dutenentzat soilik. Hirien hipermaskulinizaziotik hiperfeminizazio batera pasatu da. Saltokiak, emakumezkoen moda eta espektatiba femeninoak, estandar hiperfemino baten inguruan birformulatu dira. Hiriko auzo batzuetan, kanon horretara iristen ez diren emakumeenganako

presio soziala ematen da. Emakume helduak eta emakume musulmanak, besteak beste, auzoko komertziotik eta bizitza modelo berritik kanporatuak izaten dira, desiragarriak ez direlako eta eredu hiperfemeninoarekiko erresistentzia bat suposatzen dutekako (Van den Berg-ek, 2012; Curran, 2017). Hiperfeminizazio hau ikuspegi patriarkal eta heteronormatibo batetik bakarrik ikusi ahal da (Chapuis, Gravari-Barbas, & Jacquot, 2015). Honen arabera, emakumeak kontsumorako objektu gisa baino ez dira gizonezkoentzat. Feminitate hori maskulinitatearen menpe dago, honen sumisoa eta presoa.

Emakumeen "profil berri" hori, auzo ahulenetan gentrifikazioa sustatzen duten emakumeen bera da. Hau da, orokorrean erakunde publikoek zuzenean edo zeharka gentrifikazioa bultzatzen ari direla feminitateari buruzko diskurtso performatikoen bidez, estandar horretan sartzen ez diren emakumeak alde batera utzita. Dena den, hiri garatuen eta ez-garatuen arteko feminitate eta maskulinitatearen arteko erronkak oso ezberdinak dira eta hauen arteko konparaketa egitea akats bat izango zen (Bruckmann, 2019).

Amsterdameko DeWallen auzoan ematen ari den gentrifikazioa ere honekin zerikusi handia dauka. Hala ere, Chapuis et al.-ek (2015) dioten moduan, Amsterdameko erakunde publikoek, auzo honetan egon den prostituzioaren kultura murrizten saitzen ari dira. Udalerriaren ikuspuntutik, erdi-maila eta maila baxuko gizonezko heterosexualen maskulinitate hegemonikoa ezin da haien auzoeen turismoaren ardatz nagusia izan. Beraz, DeWallen auzoaren gentrifikazioa prozesua, "genderfication" bat ere da, genero arau berri bat bultzatzen ari delako. Honek argi uzten du administrazio publikoen ustez, sexu-langileen egoera eta beharrak ez direla klase ertaineko biztanleriaren beharrekin bateragarriak eta azken hauek lehentsi behar direla (Curran, 2017). Dena den, sexu-lan eta langileen inguruko auzia artikulu honen beste atal batean garatuko da.

Generoaren inguruan badago, beraz, marketin estrategia bat. Gentrifikazio diskurtsoekin batera, klase ertaineko emakumeei emakume "emantzipatuaren" irudia saltzen saiatzen ari dira. Gentrifikatutako auzoek, hirigunetik gertutasun handiagoa, irisgarritasuna eta segurtasuna eskaintzen dituzte askotan. Hori dela eta, auzoak ikuspegi feminista baten bidez bereganatzen eta merkantilizatzen dira. Hala ere, eskema horrek familia-dinamika patriarkalak sustatu eta indartu egin dutela alde batera uzten da. Sustatzen ari diren hiri-politika neoliberalak, feminitate eta maskulinitate batzuk bereganatzen dituzte, beste batzuk baztertzen, deuseztatzen eta desagerraraziz (Sakizlioglu, 2018).

Literaturan landutako beste kontzeptuetako bat, pobreziaren feminizazioa da. Egile askok diote emakumeek aurreko hamarkadetan baino erosteko ahalmen handiagoa izan arren, soldata baxuagoko lanpostu gehienetan oraindik ere emakume gehiago daudela. Emakumeen lan munduarako sarrerak, zerbitzuen sektorean soldata baxuko lanpostuen hedapena suposatu du. Hementxe aurkitzen dugu pobreziaren feminizazioaren kontzeptua. Kontzeptu honen ondorioz, emakumeak gentrifikazioa bezalako arazoen aurrean bereziki zaurgarriak dira.

XX. mendearen erdialdetik gaur egunerarte, emakumeen emantzipazioa gero eta handiagoa izan da heinean, soldata baxuko lanpostuen hazkundea eman da (Bondi, 1991; Ye, 2018). Hori dela eta, emakumeen egoera laboral eta sozioekonomikoa nahiko polarizatuta dago. Emakume batzuk ondo ordaindutako zuzendaritza eta lidergo postuak lortzen dituzten bitartean, beste emakume batzuk gero eta egoera pobreagoan aurkitzen dira lan merkatuaren kontrako aldean.

Egile guztiak ados daude desplazamenduak eta okupazio-aldaketak emakumeengan eragin handiagoa daukatela gizonezkoengan baino. Hau ondo antzematen da auzo gentrifikatu batzuetan, manufakturan lan egiten duten emakumeen ehunekoa gizonezkoena baino nabarmenago murrizten baita (Ye, 2018). Era berean, nahiko ohikoa da gentrifikazioa jasaten ari diren auzoetan lehen edo bigarren sektore ekonomikoan okupatutako emakumeak auzotik alde egitea eta zerbitzuen sektorean lan egiten duten emakumezkoen biztanleria haztea.

Gentrifikazioaren ondorioz desplazatuta izan diren emakume langile askok, hiriko gune urrunagoetara joaten dira. Hau da, irisgarritasun gutxiagoko eta garraio-kostu eta denbora handiagoak dituzten auzoetara (Listerborn, 2020; Ye, 2018). Ondorioz, haien gastuak handitu egiten dira eta zailagoa egiten zaie hiriguneetara sartzea.

Ildo honetatik, gentrifikazio prozesuan edo gentrifikatuta dauden auzoetako emakume langileak eta enpresaburuak anbibalentzian bizi dira desinbertsio eta gentrifikazio prozesuen ondorioz. Gentrifikazio-prozesuak kapitalizatzeko nahiaren edo beharraren eta auzoaren izaera aldatzen ari den beldurraren arteko tentsioan bizi dira (Kern, 2012). Hiri batzuetan, emakume langileen arteko sare-sozialak sortu dira eta haien artean laguntzen eta babesten dira. Dena den, lehen esan den bezala, auzoaren biziberritzea honek auzoak birbaloratzen laguntzen du, seguruagoak eta erakargarriagoak direlako (Tilk, 1997; Patch, 2005; Kern, 2010). Emakume langileek, azken finean, beren lekualdatzea eragin dezaketen baldintzak sortu ahal dituzte.

Curran-ek (2017), “auzoen segurtasuna” gentrifikazioaren marketinaren estrategia bat baino ez dela argudiatzen du. Segurtasuna eta beldurraren kontzeptuak, generizatuak daude eta hauek birgarapeneko agenda neoliberalarekin bat egiten dute (Kern, 2012). Era berean, biktima eta erasotzaileen kontzeptu generizatu eta arrazializatuak, gentrifikazioa bultzatzen eta biztanleriaren desplazamendua emateko beharrezko baldintzak sortzen laguntzen du. Hiri seguruen marketina, emakumeen hiriekiko beldurren explotazioaren eta gizonezko ez-zurien estereotipo arrazistan oinarritzen da (Curran, 2017).

Gentrifikazio-ikerketetan generoa kontuan hartzen denean, ohikoagoa da emakumeak “gentrifikatzaile” gisa bezala aztertzea honen biktima baino (Varol, 2022). Emakumeak dira jadanik kaltetutako komunitateetako kiderik kaltetuenak dira, bereziki emakume ez-zuriak, etorkinak, adinekoak... eta gentrifikazioaren aurrean bizi duten egoerari buruzko ikasketa gutxi daude.

Hiri-prozesu hauek ikertzen dituzten emakumeei eta baztertutako beste pertsona batzuei hitza ematea beharrezkoa dela defendatzen du Lees-ek (1999), ulermen eta ikuspegi zabalagoa izateko. Gentrifikazioa ez da klase arazoa edo genero arazoa soilik (Bondi, 1991; Butler et al, 1994; Varol, 2022). Horregatik, aipatzekoa da egileen gehiengoak generoaren gaiari buruzko ikerketa sakonen falta salatzen dutela. Gentrifikazioaren ikuspegi feminista ez ezik, ikuspegi intersekzionala ere defendatzen dute.

### 4.2 Arraza/etnia eta generoa

Gutxi dira gentrifikazioaren inguruko arraza eta etniaren auziaz zehazki hitz egiten duten lanak eta ikerketak (Duryea, 2006; Gierczyk, 2020; Cross, 2021). Hala ere, badaude emakume ez zurien (bereziki beltzen) esperientzari eta sentirkortasunari buruzko azterketa kualitatibo zein kuantitaitbo batzuk. Horien arten Patch (2008) Bors et al. (2017) eta Quamie (2019) autoreen azterketak azpimarratu ahal ditugu.

Hasteko, Quamie-k (2019), ikerketa oso esanguratsua egiten du Londreseko auzo gentrifikagarrien inguruan, gentrifikazioaren, generoaren eta arrazaren inguruko ikerketa zorrotz eta zehatzenetariko bat. Autoreak, gentrifikazioa batez ere gutxiengo etnikoen presentzia handia duten hiri-auzo pobretuetan gertatzen delaren inguruan egiten du bere analisia. Bereiziki, gentrifikazioak emakume beltzengan daukan eraginari erreparatzen dio. Egileak, gentrifikazio ikasketak gizon zuriz menperatuta egon dela salatzen du. Horregatik, gentrifikazioari buruzko ikerketetan, arraza eta generoaren inguruko interes gutxi egon da. Era berean, Londresen, Mendebaldeko beste hiri batzuetan bezala, gizonezkoak gehiengo garrantzitsua osatzen dute hiri-erreforma eta politiken eraketan.

Akademian eta politikan dagoen gutxienezko aniztasunak, emakume beltzek bizitzen dituzten espazioaren eta gentrifikazioaren inguruko esperientzien bazterketa bultzatu du (Quamie, 2019). Hiri-literatura zabaltzeko, emakume beltzak barneratzen dituen gentrifikazioaren ikuspegi feministaren bultzatu behar da (Pilgeram, 2019; Gierczyk, 2020; Cross, 2021). Gainera, ikuspuntu feministetatik emakume beltzak ere ez direla kontuan hartu azpimarratzen da. Horrek agerian uzten du emakume beltzek daukaten posizio sentikorra balioesten duen analisi intersekzionalen beharra. Emakume beltzei buruzko hiri-literatura gehiena, Amerikako Estatu Batuetan du jatorria, beraz, Londresen eta Mendebaldeko beste hiri batzuetan ikerketa gehiago bultzatzea premiazkoa bihurtzen da.

Klasea, gentrifikazioaren berezko agentea da. Hala ere, klaseak gurutzatzen dituen gai, auzi edo agente guztiak ez dira aztertzen. Gentrifikazioak, baliabide gutxiko pertsonengan dauka eragina eta pertsona horien artean emakume beltzak (orohar, emakumen arrazalizatuak) bi aldiz errepresentatuta daude (Duryea, 2006; Bailey, 2008; Bors et al. & Charslwell, 2017; Gierczyk, 2020). Pobreziaren feminizazioa eta arrazalizazioa bi errealitate urbanoak dira, emakume beltzek emakume eta gizon zuriek baino kaleratze-tasa handiagoa jasaten dutela erakusten duen bezala (Charslwell, 2017; Sakizlioglu, 2018). Emakume beltzak pobretuagoak dira eta elikadura-segurtasun eza eta etxegabetzea bezalako egoerak

bizitzeko aukera gehiago daukate (Cross, 2021). Gainera, emakumeek, gizonezkoak baino ugazaba-biolentzia gehiago sufritzen dute eta, gentrifikazioaren ondorioz, biolentzia hau areagotu eta okertu ahal da (Dybska, 2011).

Bors et al.-ek (2017), gizonezkoen eta emakumezkoen eta beltzen eta zurien arteko soldata arrakalari erreparatzen diete. Estatistika batzuk aztertzen dituzte eta nahiz eta ezer berririk ondorioztatu, Amerikako Estatu Batuetako pobreziaren feminizazioa eta arrazializazioa egiaztatzen dute. Aztertutako datuek, diru-sarrera baxuko emakumeek, batez beste, etxebizitzarekin lotutako gastuetan gastatzeko diru-sarrera gutxiago dituztela iradokitzen dute. Horien artean emakume beltzak nabarmentzen dira, bereziki ama bakarrak (Duryea, 2006; Bors et al., 2017).

Genero ezberdintasunak sortzen eta mantentzen laguntzen duten praktika, sinesmen eta politika sexistak, arrazistak eta diskriminatzaileak, gentrifikazioa bultzatzen dituzten berdin berdinak dira (Charslwell, 2017). Hiri askotan, hiri-garapen proposamenen erretorikak, emakume beltzak eta latinoak "urban decay"-ren zergaitia eta biktima bezala planteatzen dituzte. Honen inguran aipatu behar da emakume arrazializatuek, etxebizitzaren, garapen ekitatiboaren eta erresilientziaren inguruko antolakuntza eta aktibismoa egin dutela (Bailey 2008; Gierczyk, 2020). Baina oraindik ere azpiordezkatuta jarraitzen dute arkitektoen, hirigintzaren eta hiriko erabaki-hartze prozesuetan. Hirigintza-prozesu tradizionaletatik erabat baztertuta geratzen dira eta honek sortutako ondorioen biktima nagusietakoak dira (Gierczyk, 2020). Gentrifikazioaren ikerketa intersekzionalek, politika-arduradunak emakume arrazializatuen egoera hobeto ulertzeko oso baliagarriak dira (Bors et al., 2017).

Emakume beltzen pobreziaren ildotik jarraituz, badago gentrifikazioa eta emakume beltzen erditze goiztiarrarekin erlazionatzen duen ikerketa bat (Cross, 2021). Esan beharra dago autoreak ez duela kausalitate argirik aurkitzen. Dena den, gentrifikazioak etxebizitza-kostuetan daukan eraginaren ondorioz, emakumeek etxebizitza-segurtasun ezaren aurrean geratu ahal direla. Azken horrek, aldi berean, jaiotza goiztiarra izateko arriskua areagotu dezake. Auzo gentrifikatu edo gentrifikazio prozesuan dagoen auzo batean bizitzeak dakartzan tentsio ekonomikoak, emakumeen jaio-aurreko zaintzarako erabilera murriztu dezaketela ondorioztatzen da.

Beste ildo batetik, gentrifikatzen ari diren auzoetan bizi diren emakume arrazializatu asko lekuz kanpo sentitzen direla azpimarratzen da zenbait ikerketetan (Cahill, 2008; Quamie, 2019; Dizon, 2022). Auzoaren nortasuna eta beste pertsona batzuekiko senidetasun sentimendua galdu delari buruz hitz egiten da, batez ere emakume beltzen artean.

Oso garrantzitsua da, gainera, gentrifikazioak kontsumo lokalera zuzendutako negozio txikiak ixten dituela. Janari etnikoko jatetxe eta beste negozio etniko asko itxi dira hiri batzuetako auzo beltz eta txinatarretan (Dighton & Quamie, 2019; Gierzyk, 2020; Dizon, 2022). Tokiko merkataritza auzoaren identitatearekin lotuta dago eta gentrifikazioaren ondorioz identitate eta pertenentzia hori desagertzen da. Norbanakoaren kultura eta historia partekatzen duten beste pertsona batzuk gertu izateak, lotura sentimendu handia sortzen du inguruarekin.

Klase ertain edo altuko biztanleria zuri baten etorrerak, auzoen eta kulture apropiazioa dakar auzo arrazializatuetan. Gentrifikazioa ez du bakarrik desplazamendu fisikoa suposatzen, baizik eta desplazamendu kulturala ere (Cahill, 2008).

Bestalde, Patch-ek (2008) egindako azterketa aurkitzen dugu. Autoreak, nagusiki zuriak diren auzoetan gertatzen diren arazo batzuei buruz hitz egiten du bere Williamsburg-eko (New York) ikerketan. "Kaleko begiak" deitzen dion kontzeptu arrazista, kontrolatzaileegia, intrusiboa eta bizitegi aldaketa oztopatzen duen indar baztertzailea dela dio. Kontzeptu hau emakumeek, batez ere aurreko hamarkadetako etxekoandre zuriak, haien auzoak etengabe zaintzen zituztela edozein motatako bandalismoa ekiditeko ideian oinarritzen da. Horrek guztiak, auzoko bizilagunak eta, neurri batean, ezezagunak, kanpoan mantentzen lagundu zuen (Patch, 2008).

Azpimarratzen da etxekoandre horietako gehienak klase ertaineko emakume zuriak zirela eta erresistentzia berezia erakutsi zutela bizilagun afroamerikar berri posibleen aurrean. Beste era batera esanda, "kaleko begiak" komunitatearen zaintza maltzur eta arrazista bat baino ez zela. Patch-ek dioen bezala, Williamsburg-en kasuan, bizilagun zuriek, batez ere emakumeek, komunitateko polizia erabili zuten beltzak eta latinoak auzotik kanpo uzteko. Ondorioz, integrazioaren aurkako erresistentzia arrazista horrek askatasuna eman zion biztanleria zuri gentrifikatzaileari inongo susmorik sortu gabe auzora sartzeko. Erdi-mailako biztanleria zuri berri bat sartzearekin batera, gentrifikazio prozesua hasi zen auzo honetan, eta negozio berriak sortzen hasi ziren, horietako asko emakumeek zuzenduta. Ondorioz, alokairuak igotzen hasi ziren, erosteko ahalmen txikiagoko bizilagunak auzotik alde egitera behartuz.

Orokorrean, gentrifikazioaren azterketek klase ertaineko emakume gentrifikatzaileetan zentratu dira (Gierczyk, 2020). Gentrifikazioak emakume arrazializatuetan eragin neurrigabeak izan arren, haien esperientzia aztertzen duten datu gutxi eta ikerketa kualitatibo zein kuantitatibo eskas daude. Gainera, aipagarria da arraza edo etniaren inguruko ikerketak bereziki emakumen beltzetan zentratzen direla. Arrazaren, klasearen eta generoaren arteko desberdintasunak eta gentrifikazioarekin daukaten loturak sakonki aztertzeko beharra sortu da (Dighton, 2019). Azkenik, ikerketa gehiagorekin, emakume pobre edota arrazializatuen egoera ulertzeko eta hobetzeko politikak bultzatu ahal dira (Bors, Pugh, Tinkler, & Trushin, 2017).

### 4.3 Zahardadea eta guraso bakarreko familiak

Gentrifikazioarekin, auzoetako sare sozialen zati handi bat apurtzen da, eta horri, auzokideen estresa areagotzea eta baliabide sozial eta ekonomikoen desagerpena gehitzen zaio. Ondorioz, egoiliarren osasun mentala eta fisikoa hunkituta geratzen den eszenatoki baten aurrean gaude, batez ere adineko biztanleriaren artean (López et al, 2022). Askotan, gentrifikazio prozesuan dauden auzoetako biztanleak deserrotuta sentitzen dira,

batez ere kanpotar sentitzen direlako “besteren hirian”. Galera sentimendua tristurarekin, larritasunarekin, isolamenduarekin eta bakardadearekin lotuta dago.

Gentrifikazio prozesuetan, eta zahartzaroaren feminizazioa dela eta, adineko pertsonak bereziki zaurgarriak dira (Bondi, 1999; Marwick, 1995; Curran, 2017; Sakizlioglu, 2018). Diru-sarrera baxuak dituzten biztanleriaren zati bat dira, potentzialki gentrifikagarriak diren auzoetan bizi ohi direlarik. Gainera, historikoki, biztanleriaren zati honen sozializazioa auzo harremanetaz markatuta egon da. Antzeko adinetako beste bizilagunekin eta auzoko komertzioen jabeekin mantentzen dituzten harremanak funtsezkoak dira adineko pertsonen ongizaterako.

Gentrifikazioak alokairu handiagoak ordaindu ezin dituen biztanleria egoiliarra kanporatzen du eta auzoko merkataritza ere eraberritzen du: negozio tradizionalak itxi egiten dira negozio modernoagoei bide emateko. Ondorioz, gentrifikazioak dakarren gizarte-harremanen haustura horrek oso eragin negatiboa dauka adineko pertsonengan, haien bakardadea areagotuz eta osasun mentalean eraginez (Listerborn, 2020).

Bartzelonako Udalak (2020) egindako ikerketan, hiriaren gentrifikazioa aztertzen da. Adineko emakumeak bereziki zaurgarria den talde bezala identifikatzen dira, batez ere bakarrik bizi direnak. Ikerketa honen arabera, adineko emakumeen kopurua asko murrizten da auzo gentrifikatuetan. Hau ematen da, batez ere, gentrifikazio-prozesuan dauden auzoetan bizi diren (edo dagoeneko gentrifikatuta dauden auzoetan bizi diren) adineko emakumeek etxebizitza-gastuei aurre egiteko esfortzu handiagoa egin behar dutelako hiriko beste auzoetako emakumeek baino.

Ortiz et al-ek (2021) adineko emakumeak eta ama bakarreko familiak gizonezkoak baino egoera zaurgarriagoan aurkitzen direla ere ondorioztatzen dute. Zahartzaroa oso feminizatuta dago eta, beraz, adineko emakumeak bakarrik bizitzeko probabilitate handiagoa daukate. Azpimarratzen da auzorik gentrifikatuenak direla adineko emakumezkoen pertsona-bakarreko etxeen kopuruan beherakada nabarmena izan duten auzo bakarrak.

Lopez et al. (2022) identitatearen garrantziaz eta jatorri sentimenduaz ere hitz egiten dute. Azterketa honetan egindako elkarrizketetan, gentrifikazioarekin eta hiri-aldaketarekin jende askok zerbait baliotsua eta maitatua galtzen dutela ondorioztatzen da, baita haien identitatearen parte ere. Tokiko negozioak ixten diren heinean, adinekoek beren beharrak asetzen dituzten hiriko beste gune batzuetara joan behar dira. Hala ere, adineko pertsona hauek mugikortasun arazoak izaten dituzte, eta, ondorioz, behar dituzten produktu eta zerbitzuetarako sarbidea mugatua da. Era berean, garrantzitsua da nabarmentzea auzokideek beraien auzoekiko daukaten errotze sentimendua, batez ere adineko pertsonetan. Lehen esan bezala, gentrifikazioak pertsona horien harreman sozialak hautsi eta ohiko negozioak ixten ditu.

Adineko emakumeak “auzoa zaintzen” eta bertan gertatzen diren aldaketei arreta handiagoa ipintzen dieten pertsonak bezala ikusten ohi dira. Komunitatearen narriaduraren ondorioak

eragin handiagoa izaten du emakume hauengan gizonezkoengan baino. Auzoak ez dira hain atseginak eta seguruak, eta ez dira adineko emakumentzako eginak (Ortiz et al, 2021).

Azkenik, azpimarratzekoa da auzo gentrifikatuetako ama bakarreko etxeen kopurua hiriko batez bestekoaren azpitik hazten dela (Bondi, 1991; Marwick, 1995; Bondi, 1999; Curran, 2017; Ajuntament de Barcelona, 2020; Ortiz et al, 2021; López et al, 2022). Familia mota hau bereziki zaurgarria dela argudiatzen da, batez ere familia hauek etxebizitza ordaintzeko egiten duten ahalegina hiriko batez besteko familiarena baino handiagoa delako. Gainera, etxebizitza ordaintzeko zama hartzen duten bitartean, haien seme-alabak zaintzen eta hauen gastuak ordaintzen dituzte. Gainera, etxebizitza sozialen onuradun nagusienak ama bakarrak izaten ohi dira eta etxebizitza motan hauen pribatizazioaren aurrean oso sentikorrak dira (Curran, 2017).

Bartzelonako kasuan, emakumezkoak etxeburuak diren familien kopuru handitzen da hirian zehar, baina auzo gentrifikatuetan hiriko batez bestekoaren azpitik hazten da. Hazkunde are txikiagoa ematen da jadanik gentrifikatuta dauden auzoetan (Ortiz et al, 2021).

Ezkongabeko emakumeak zailtasun handia izaten dute auzoan etxebizitza merkeak aurkitzeko (lanetik, gurasoen etxetik, seme-alaben eskolatik etab-rretik gertu daudenak, adibidez). Indarkeria egoerak eta mendekotasun eta ahultasun egoerak ere azpimarragarriak dira (ekonomikoak batez ere). Arrazoi horiek guztiek, gentrifikazioarekin batera, haien ardurapean adingabeak dituzten eta bakarrik bizi diren emakumeen etxeetan bereziki oso eragin negatiboa daukate (Duryea, 2006; Bors et al., 2017).

Azkenik, azpimarratzekoa da gentrifikazioagatik bakarrik bizi diren eta beste pertsona batzuekin pisua partekatzera behartuta dauden emakumeen egoera ere. Eszenatoki hau gero eta ohikoagoa da baliabide gutxiko emakumeen eta emakume desgaituen artean (Maier et al, 2022). Desgaitasunaren eta gentrifikazioaren inguruan oso gutxi aztertu da, baina auzi honi buruz ikertzea nahiko aproposa izango litzateke.

Apartamentu alokairuak zeresan handia izan du auzo askoren gentrifikazioan. Hala ere, egoera hau prekaritate ekonomikoa eta ezintasun fisikoa jasaten duten pertsonentzat probetxugarria izan da. Emakume desgaitu batzuek, Airbnb bezalako plataformak erabiltzen dute jasaten dituzten desberdintasunak leuntzeko. Haien etxebizitzak alokatuz, emakume batzuk haien auzoetan bizitzen jarraitu ahal izan dute, auzo hauek azkar garestitzen ari zirelarik (Maier et al, 2022). Horrela, lurjabe bihurtuz, gentrifikazioaren ondorioz hazten ari diren finantza presioei aurre egin ahal diete.

### 4.4 LGTB komunitatea, sexu-lana eta generoa

Sexualitatearen eta genero identitatearen eta gentrifikazioaren arteko harremanaren inguruan ikerketa batzuk aurki ditzakegu. Dena den, berez generoaren auzia jorratzen duten azterketa gutxi daude.

Hasteko, esan beharra dago bai emakumeak, bai LGTB pertsonak kaleko indarkeria eta diskriminazioa bereziki jasaten dituztela eremu publikoetan. Gainera, biztanleriaren bi talde hauek, familia-eredu suburbano eta patriarkalari uko egin diote, hirigune eta dentsitate handiagoko eremuetan bizitzearen aldeko apustua eginez.

Modu honetan, Spain-ek (2014) azken hamarkadetan emakumeek eta LGTB pertsonek hirien hiri-eraldaketan eta birkonfigurazioan izandako papera aztertzen du. Gaur egun, kalean presentzia handiagoko pertsonak izanik, hiri-espazioaren betiko antolakuntza tradizionala zalantzan jartzen dute. Egileak emakumeak eta LGBT pertsonak agente gentrifikatzaile potentzial gisa deskribatzen ditu.

Bestalde, Doan-ek (2011) LGTB komunitateak hiriko bizitzan jasaten duen marjinazioa aztertzen du. Aurreko hamarkadetan hiriko zenbait auzotan, gizon gay eta emakume lesbianentzako espazio jakin batzuk garatu zirela dio. Dena den, espazio lesbikoen territorializazioa, emakumeen eros-ahalmen txikiagoaz eta genero indarkeriaren arriskuaz (kale-erasoak, indarkeria zuzentzailea...) baldintzatuta egon da.

Gaur egun, historikoki LGBT izan diren auzo asko (gehienetan pobreak), klase ertaineko biztanleria heterosexual baten eskuz gentrifikatzen ari dira. Ondorioz, bertako bizilagunen zati handi bat beren auzoak utzi eta alokairu prezio baxuagoko beste auzoetara jotzera behartuta daude. Hori dela eta, Atlanta bezalako hirietan, emakume lesbiana asko (batez ere adinekoak) auzo afroamerikarretara joan ziren bizitzera. Auzo hauek alokairu merkeak eta hirigunetik nahiko hurbil zeuden bakarrak zirelarik.

Dybska-k (2011) auzo lesbikoen gentrifikazioan ere jartzen du arreta. Egileak dio duela hamarkada batzuk, emakume lesbikoak komunitate jakin batzuetan ezarri zirela. Bertan, laguntza eta erresistentzia sare lesbikoak sortu zituzten artearen eta politikaren bitartez. Azken honek, gaur egun, turistak eta pasadizoko jende gehiago erakartzen ditu eta pertsona batzuk auzo horietara mugitzen hasten dira. Gentrifikazioarekin batera auzo lesbikoen esentzia sinbolikoaren aldaketa eta heteroarauaren indarketa aurki ditzakegu. Ondorioz, komunitate lesbikoa, eta orokorrean LGTB-a, hirietan sakabanatuta eta bakartuta dagoelaren aurrean aurkitzen da. Nolabait, sare sozial batzuk hautsi egin dira emakume horien artean eta helburu politiko eta sozialetarako antolakuntza, zaila bihurtu da (Doan & Dybska 2011; Curran, 2017).

Gentrifikazioak emakumeen eta LGTB pertsonen emantzipazioan lagundu duela ere komentatzen da ikerketa batzuetan zehar. Dena den, gai hau jorratzen duten ikerketa gehienek klase ertaineko emakumeei eta LGTB pertsonei buruz soilik hitz egiten dute, bi populazio-talde hauek historikoki pobreziaz eta lan-prekarietateaz markatuta egon direla erabat baztertuz. Beraz, gentrifikazioaren onurak, baliabide nahikoak dituzten emakume eta LGTB pertsonek soilik gozatzen dituzte. Azken hauek, emakume eta LGTB pertsona pobreen bazterketa are handiagoan parte-hartzen dute. Pertsona queer dirudunek (zuriak gehienbat), auzo queer-en gentrifikazioa bultzatzen dute eta haien komunitateko pertsona asko (bereziki sexu-lanean aritzen diren emakume trans eta gizonezko gay ez-zuriak)

arriskuan jartzen dituzte poliziaren presentzia handiagoaren eskatzaileak direlako (Curran, 2017).

Bestalde, zenbait ikerketek adierazten dute gentrifikazioaren aldeko diskurtsoek sexu-langileen aurkako indarkeria eta desplazamenduak legitimatu dituztela (Curran, 2017), baita hiriaren erdigunean bizi zen langile-klasearen aurka ere. Estatuak bultzatutako gentrifikazio prozesuetan, sexu-langileen aurkako herailketak eta biolentzia bultzatu da (Wright, 2013, 2015). Diskurtso hauek auzo baztertuetara bultzatu ziren gutxiengo talde etnikoen auzoetan ere ematen dira. Emakume txiroenak, sarritan, gentrifikazioa kapitalizatzearen eta lekualdatzeko zorian egotearen arteko oreka lortzen saiatzen dira (Kern, 2012; Sakizlioglu, 2018). Jarrera honek, emakume hauek auzoko beste pertsona zaurgarriekin harreman informalak garatzera eraman ditu, zenbait laguntza-sareak sortuz.

Ildo horretatik, Sakizlioglu-k (2018) sexu-lanan aritzen diren emakume transgeneroek (sekulako prostituzio-tasak sufritzen dutelarik) gentrifikazioaren ondorioz beraien auzoetan areagotu den indarkeriari aurre egin behar dutelari buruz ere hitz egiten du. Emakume trans hauek beren komunitatea sozialki erreproduzitzeko eta prostituzioan diharduten beste pertsona zaurgarri batzuekin laguntza-sareak sortzeko gai izan dira.

Dena den, gentrifikazio prozesuen eta auzo baztertuenetan ematen den poliziaren indarkeria eta zaintza areagotzearen ondorioz, emakume hauek haien auzoetatik lekualdatu egiten dira. Prostituzioan diharduten emakumeen lan eta etxebizitza inguru seguruan bizitzeko ahalmena, bezeroen, auzokideen eta poliziaren indarkeriaren eta hiri-desplazamenduekiko baldintzatuta dago (Goldenberg, Amram, Braschel, Moreheart, & Shannon, 2020). Normalean, emakume batzuk aldameneko auzoetara mugitzen ohi dira, baina, auzo horietan ez daukate laguntza-sare berdina edota komunitate batean bizitzeko segurtasuna. Honekin, emakumen trans sexu-langileen kriminalizazio eta bazterketa historikoa indartzen da eta lurralde eta komunitate bat izateko ez-duinak bezala ikusten dira (Curran, 2017).

Oro har, auzoen eta komunitatearen laguntza oso garrantzitsua da gentrifikazioak sortutako desplazamenduari aurre egiteko orduan. Laguntza hauek galtzea hilgarria izan daiteke emakume hauentzat, estrategia kolektiboak erabili baitzituzten ekonomikoki eta sozialki bizirauteko, nahiz eta desplazamenduaren mehatxupean egon. Horregatik, gentrifikazioak emakume horien etxeak galtzeaz gain, haien komunitateak eta bizirauteko baliabideak ere galtzea dakar (Sakizlioglu, 2018).

Lehen aipatu den moduan, Chapuis et al.-ek (2015), De Wallen, edo Red Light izeneko auzoaren hiri-berrikuntzari buruz ariten dira. Estatuak bultzatutako gentrifikazio (López-Morales, 2019) honen helburua, sexu-enpresak murriztea, merkataritza hobetzea eta nazioarteko kapitalak erakartzean datza. Sexu-langileen eta LGTB espazioen merkantilizazioa bultzatzen da haien izaera politikoa baztertuz eta berregituraketa urbanistiko bat bultzatuz; ikuskizun kosmopolita bat bezala saltzen ari dira. Hau, dagoeneko beharrezkoa ez den aktibismo historikoa bezala ulertzen da. Queer espazioen tolerantzia ez da “mainstream”-a,

baldintzapeko eta behin-behinekoa baizik. Politika neoliberalen helburua ko-optazioa da, ez askapena ezta egiturazko arazoen hobekuntza ere (Curran, 2017).

Gay auzoek eta prostituzio inguruek, hamarkadetan jasando duten segregazio sozioespaziala daukate amankomunean. Gainera, bi hiri-eremu hauek, auzo eta ingurune berdinetan egoten ohi dira. Halaber, munduko hiri batzuetan, gay auzoak nolabaiteko toki seguru batzuetan bilakatu dira LGTB komunitaterako, baina ez sexu-langileentzako, nahiz eta langile hauen askok komunitatearen barruan egon. Askotan, globalizatutako negozioetan lan egiten duten arren, sexu-langileek oraindik izugarrizko estigmatizazioari aurre egin behar diote (Chapuis et al., 2015). Autoreek "genero-errespetagarritasuna" bultzatzen ari dela argudiatzen dute, prostituzioan diharduten emakumeak erabat baztertzen eta marjinatzen.

Goldenber et al-ek (2020), gentrifikazioak sexu-lanean aritzen diren emakume marginalizatuetan daukan eraginaren inguruko azterketa epidemiologiko gutxi egin direla salatzen dute. Vancouver eta munduko beste hiri askotan, sexu-langileek osasun-desberdintasun larriak izaten jarraitzen dute, bereziki GIBaren eta sexu-transmisiozko infekzioen eta sexu eta ugalketa-osasunaren inguruan. Orokorrean, egiturazko marginalizazioaren ondorioz osasun-zerbitzuetarako irismen oztopo handiak izaten dituzte, bereziki sexu-langile trans-ek. Gentrifikazioaren ondorioz, sexu-lanean diharduten emakumeek leku ez-seguru eta ezezagunetara lekualdatzen direla diote autoreek. Auzo hauetan, GIB/ITS harrapatzeko arrisku handiagoa egoten ohi da eta osasunerako kalteak murrizteko oztopoak areagotzen dira.

Gentrifikatutako auzoetan GIB eta ITS testaketa murrizten dela diote autoreek. Beherakada hau, gentrifikazioarekin lotutako sexu-langileen lekualdatzearekin lotuta dago. Izan ere, emakumezko hauek sexu-langileentzako eta biztanleriaren beste zati marjinalizatu batzuentzako (gizonezko gay-ak bereziki) zuzendutako GIB eta ITS testatze zerbitzuak pilatzen diren eremuetatik kanporatzen dira (Goldenberg et al., 2020).

Curran-ek (2017) eta Sakizlioglu-k (2018) gentrifikazioa, klasea, generoa, adina, sexualitatea, etnia/arraza eta lokalitatea kontuan hartzen dituen ikuspuntu feminista intersekzionaletik aztertzea eskatzen dute. Modu honetan, prozesu hauek beren alderdi eta konplexutasun guztietatik uler daitezke. Hiri-ikasketen eta ikasketa feministen edo generoaren arteko diziplina-hesia kentzearen alde egiten dute.

## 5. Ondorioak

Gentrifikazioari buruzko ikerketen gehiengoak klasean soilik oinarritzen dira. Jakina, klasearen auzia gentrifikazioaren berezko zerbait da, prozesu hauek klase-arazo gisa jaiotzen baitira. Dena den, klasea zeharkakoa da eta generoa, arraza/etnia, sexu orientazioa eta genero identitatea, adina... zeharkatzen ditu. Beraz, emakumeen eta gizonen esperientziak eta klase-esperientziak desberdinak dira, bai estratu sozioekonomiko aberatsenen artean

bai pobreenen artean. Ondorioz, garrantzitsua da generoari arreta jartzea, baita arraza eta bestelako gaiei ere, gentrifikazioaren ikuspegi zabalagoa eta errealistagoa izateko.

Horrela, lan honetan analisi intersekzionalak duen garrantzia azpimarratzen da. Horretarako berrikuspen honetan bibliografiak duen hutsuneak eta indarguneak nabarmendu nahi dira.

Generoaren gaiari buruz dagoen bibliografia eskasa pixkanaka-pixkanaka garatzen ari dela esan behar da. Azkeneko hamarkadan, gentrifikazioaren eta generoaren auzia interes handia piztu du eta analisi teoriko eta praktiko batzuk egin dira. Halere, genero ikuspegiko gentrifikazio azterketek, oradindik ere, ikuspegi eta gerturaketa nahiko alboratuak izan dituzte eta subjektibotasunetik abiatu dira.

Genero auziaren inguruko analisi intersekzionalaren ibilbidea oso mugatua da. Gentrifikazio prozesuei buruzko azterlan feministek ikuspegi eurozentrikoa izan ohi dute eta ez dituzte emakume talde ezberdinen arteko errealitate desberdinak guztiz biltzen. Generoa aztertzerakoan, bakarrik emakumen gentrifikatzaileetaz hitz egiten da, emakume txiroen eta baztertuen egoera alde batera utzita. Jakina, azterketa hau beharrezkoa eta ezinbestekoa da gentrifikazio prozesuetan klase eta generoaren arteko dinamika hobeto ezagutzeko. Hala ere, prozesu hauen aurrean existitzen den emakumeen ahultasun berezia, oso gutxitan aipatzen eta aztertzen da. Literaturaren analisian esan den bezala, pobreziaren feminizazioa egitate bat da, baita pobreziaren arrazalizazioa ere. Pobreziak, emakumeei eta zuriak ez diren pertsonei neurrigabe eragiten die. Beraz, klasearen azterketa orok, generoa eta arraza klasearekin zorrotz erlazionatuta dauden gaiak bezala aitortu eta aztertu behar ditu.

Esaterako, emakume beltzen egoera aztertzen duten ikerketek, gehienetan, gentrifikazioaren aurrean emakumeen ahultasun eta egoera prekarioaz hitz egin ohi dute. Gauza bera gertatzen da emakume pobre, adineko emakume, bikoterik gabeko eta seme-alabekin dibortziatutako emakume, emakume lesbiko, emakume trans, sexu-lanean aritzen diren emakume... eta bereziki zaurgarri diren beste hainbat emakume talderekin. Azterketa hauek beti emakumen txiroen egoerari buruz hitz egiten dute, hau da, gentrifikazioaren biktimetan zentratzen dira. Emakume mota guztiak kontuan hartuko balira, ziurrenik literatura zabalagoa izango genuke, ia soilik emakume gentrifikatzaileetan zentratzen den literatura baino.

Bestalde, badirudi adineko emakumeak, emakumeen azpikategoria huts bat bezala hartzeko joera dagoela. Aztertutako literaturaren gehiengo zabalean, aztertzen den “emakume estandarra”, ugaltzeko gaitasuna duen 18 eta 50 urte bitarteko erdi-mailako emakume heterosexual zuria da. Profil horretik kanpo geratzen den edozein emakume, bigarren kategoria batera baztertzen da. Adineko emakumeak (70 urtetik gorakoak), beste emakume asko bezala, ez dira emakumeen profil horretan sartzen. Horregatik, gentrifikazioaren eta generoaren analisi eta azterketetan, adineko emakumeei buruz oso azaletik hitz egiten da. Auzi honen inguruko literatura, lehen aipatutako profila betetzen duten emakumeetan zentratzen da. Gainerako beste emakume taldeek jasaten dituzten arazo eta ahultasun egoerak, emakumeei eragiten dieten “arazo nagusien” astungarri huts bezala hartzen dira.

Adineko emakumeek bizi dituzten esperientziak eta egoera desberdinak ez dira berez genero arazo gisa tratatzen. Itxuraz garrantzitsuagoa edota esanguratsuagoa den beste genero arazo baten parte bezala besterik ez dira aipatzen.

Beste ildo batetik, eztabaida interesgarrienetako bat hirigintza neoliberalaren bitartez ematen den emakumeen emantzipazioari buruzkoa da. Ikerketa hauek, auzo gentrifikatuek emakumeei eskaintzen dizkieten aukerak zerrendatzen dituzte. Hala ere, emakume pobreen eta emakume aberatsen arteko desberdintasunak ez dituzte aitortzen ezta aztertzen. Gentrifikatutako espazioak eta hiri moderno feminizatuak, baliabide gutxiko emakumeak baztertzen dituzte, baita profil hiperfeminizatu horretan sartzen ez diren emakumeak ere. Emakume dirudunen eta pobreen arteko bereizketa argia egiten ez duten ikerketa hauek, klase esentzialismoetan erortzen dira. Generoa erabat desklasatzen dute eta emakumeen askapena uztarri patriarkaletik kapitalaren jabetzaren bidez emango dela diote. Literaturan zehar, generoa kontuan hartzen ez duten gentrifikazio azterketekin eta klasea kontuan hartzen ez duen genero analisiekin aurkitzen gara gehienbat.

Gentrifikazioaren ahalmen emantzipatzailea beste pertsona zaurgarri batzuen desjabetzearen eta baztertzearen bitartez ematen da, batez ere emakumeena. Etxebizitzak, auzoak, erreprodukzio-sozialeko formak eta hirien erdigunerako sarbidea ukatzen zaizkie. Ez dago gentrifikazioa justifikatzeko biderik klaseen, sexuen, arraza/etnien... arteko berdintasun eta elkartasuneko testuinguru batean. Generoa eta sexualitatea, betidanik, hiri-politiken kanpotik geratu dira. Gaur egun ordea, erreklamo gisa erabiltzen dira politika neoliberalak defendatzeko, betiere gizonezko heterosexualak politika hauek bultzatzen dituztelarik, haien pribilegioa eta interesak mantentzeko.

Ikerketen metodologiaren aldetik, artikulu gehienak teorikoak edota estatistikoak direla esan behar da, analisi kualitatibo gutxi daude. Halere, autore batzuk ikerketa kualitatibo oso zorrotzak eta zehatzak egiten dituzte, ondorio nahiko esanguratsuak lortuz. Izan ere, metodologia kuantitatibo batek gentrifikazioaren gorabeherak ikusteko oso aproposa da, baina ez du gentrifikazioa pairatzen duten pertsonen egoera aztertzen zenbakietaz at. Hurbilketa kualitatiboek izaera gizatiarra daukate eta pertsonen errealitateak hobeto ulertzen laguntzen gaituzte. Beraz, honelako ikerketak bultzatzea komenigarria da, arreta nagusiena biktimetan jarrita, gentrifikazioaren ondorioak hobeto ulertu ahal baitira.

Literaturan zehar ikusitako hutsuneak, kontraesanak eta azterketa orokorrak direla eta, artikulu honetan zenbait ikerketa ildo proposatzen dira. Lehenengo eta behin, emakume nagusien bazterketa, desplazamendua, osasun falta eta bakardadea eta gentrifikazioaren artean dagoen erlazioa aztertu behar da. Izan ere, tokiko administrazio batzuk, pertsona nagusien zaintzarako estrategiak bultzatzen ari dira (zaintza ekosistemak, esate baterako), baina hau gentrifikazioaren logikaren kontrakoa da. Ez bada gentrifikazioaren aurkako estrategiarik egiten, nagusientzako zaintzerako politikak zalantzan jartzen dira. Politika hauek aztertzen dituzten ebaluazioak proposatzen dira.

Beste ildo bat, gentrifikatutako auzoetan bizi diren emakume langileen egoera sozioekonomikoa eta haien artean ematen diren estrategia kolektiboak aztertzea izan daiteke. Gentrifikazioaren aurrean ematen diren erresistentzia estrategiak aztertuz, fenomeno honen aurkako politika berriak diseinatu ahal dira. Honekin lotuta, oso aproposa eta interesgarria izango litzateke erakunde publikoek, gentrifikazioaren bidez, sexu-langileen aurka bultzatzen duten "gorrotoa", estigmatizazioa eta desplazamendu planifikatua ikertzea. Hiri post-industrialetan eta industrializazio prozesurik izan ez duten hirietako gentrifikazio ezberdinen eta hauek emakumeengan daukaten eragin ezberdinak aztertzea eta sailkatzea proposatzen da ere.

Erakunde publikoek gizonezkoen galdutako hegemonia berreskuratzeko bultzatzen ari diren estrategiak aztertzea ere proposatzen da. Bai eta "gay auzoetan" ematen ari den gentrifikazioa eta agenda atzerakoien arteko harremana ere. Izan ere, agenda hauen helburua, komunitatearen desartikulazioa eta sakabanaketa da, maskulinitate hegemonikoa, heteronorma eta "normalitatea eta errespetagarritasuna" berreskuratzea da. Era berean, auzo pobreetan bultzatzen ari den emakumeen eta LGTB pertsonen "askapen eta emantzipaziorako" estrategia kapitalisten (hotelak, kostu altuko zerbitzuak...), estatuak bultzatutako gentrifikazioaren eta komunitateen desagerpenaren arteko harremana ikertzea proposatzen da.

Eskuragarri dagoen literatura laburra da, eta batzuetan desadostua eta kontraesankorra. Hala ere, azken hau oso ohikoa izaten da gutxi landutako auzi eta problematiketan. Horregatik gentrifikazioari buruzko azterketak genero-ikuspegi intersekzionaletik zabaltzea beharrezkoa da. Horrela, gai honen garrantzia ezagutarazi eta hiri berdinzaleagoak defendatzen dituzten politika feminista intersekzionalak sortu ahal izango dira. Era berean, eztabaida handiagoa ere sor liteke gaiaren inguruan eta ondorio aberasgarri eta esanguratsuagoak atera.

## 6. Bibliografia

Ikerketa honek Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren finanziazioa dauka, hurrengo zuzeneko dirulaguntzaren bitartez SUBDIR22/17. Impulso de una línea de investigación e innovación en materia de cuidados sociales y sociosanitarios en la Comunidad Autónoma de Euskadi (2022-23)

Ajuntament de Barcelona. (2020). *La gentrificació a la ciutat de Barcelona des d'una perspectiva de gènere: aproximació quantitativa.* Barcelona.

Badger, E., Bui, Q., & Gebeloff, R. (2019). The neighborhood is mostly black. The home buyers are mostly white. *The New York Times*.

Bailey, N. H. (2008). Women, Gentrification and Harlem. En R. L. Riley, C. T. Mohanty, & M. B. Pratt, *Feminism and War: Confronting US Imperialism* (págs. 232-238). Zed Books.

Bondi, L. (1991). Gender Divisions and Gentrification: A Critique. *Transactions of the Institute of British Geographers, 16*(2), 190-198.

Bondi, L. (1999). Gender, Class, and Gentrification: Enriching the Debate. *Environment and Planning D: Society and Space, 17*, 261-282.

Bors, A., Pugh, C., Tinkler, J., & Trushin, L. (2017). Counteracting Gendered Impacts of Gentrification: Improving Affordable Housing Access for Women of Color in Durham County. *UNC Public Policy Capstone*.

Bruckmann, M. (2019). Burası Tophane [This is Tophane]: An Inquiry into the Gender Dynamics of Gentrification in Istanbul.

Butler, T., & Hamnett, C. (1994). Gentrification, Class, and Gender: Some Comments on Wardens 'Gentrification as Consumption'. *Environment and Planning D: Society and Space, 12*, 477-493.

Cahill, C. (2008). Negotiating grit and glamour: Young women of color and the gentrification of the Lower East Side. *City & Society, 19*(2), 202-231.

Chapuis, A., Gravari-Barbas, M., & Jacquot, S. (2015). Tourism / Gentrification: sex, gender and crossed resistances. Chigago: Association of American Geographers (AAG) Annual Meeting.

Charslwell, C. (2017). Gentrification is a feminist issue. En C. Jenkins, *The 2017 Hampton Reader: Selected Essays from a Working-class Think Tank* (págs. 91-96). Hampton Reader.

Cheshire, L. (2018). Neighbourhood change and neighbour complaints: How gentrification and densification influence the prevalence of problems between neighbours. *Urban Studies, 56*(6), 1093-1112.

Cross, R. I. (2021). Gentrification, housing insecurity, and Preterm Birth among Black women and birthing people in the San Francisco Bay Area. Department of Community Health Sciences.

Curran, W. (2017). *Gender and Gentrification.* Routledge.

del Socorro Pérez Rincón Fernández, M. (2017). Alternative narratives from an invisible city: gentrification, counter-proposals, and women activism. En A. Albet, & N. Benach, *Gentrification as a Global Strategy* (págs. 246-259). London: Routledge.

DeSena, J. N. (2018). Women and Gentrification: A Call for Further Research. *Urbanities, 8*(2), 62-68.

Dighton, D. (2019). Encountering Gentrification: Affordances of a Feminist Approach to Rhetorical Circulation and Twitter Data Studies. *North Carolina State University ProQuest Dissertations Publishing*.

Dizon, A. (2022). Understanding the Activism and Leadership of Women in Los Angeles Chinatown: Perspectives and Experiences in Addressing Gentrification. *Department of Political Science, California Polytechnic University, Pomona*.

Doan, P. L., & Higgins, H. (2011). The Demise of Queer Space? Resurgent Gentrification and the Assimilation of LGBT Neighborhoods. *Journal of Planning Education and Research, 31*(1), 6-25.

Duque Calvache, R. (2016). *Procesos de gentrificación en cascos antiguos: el Albaicín de Granada.* Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas.

Duryea, D. P. (2006). Gendering the Gentrification of Public Housing: HOPE VI's Disparate Impact on Lowest-Income African American Women. *Georgetown Journal on Poverty Law & Policy, 13*(3), 567-593.

Dybska, A. (2011). Gentrification and Lesbian Subcultures in Sarah Schulman"s 'Girls, Visions and Everything'. *Polish Journal for American Studies, 5*, 99-110.

Gierczyk, M. (2020). Magic City Killjoys: Women Organizers, Gentrification, and the Politics of Multiculturalism in Little Haiti. *Anthuriu, 16*(1), 1-21.

Glass, R. (1964). The Changing Face of London. En R. Glass, E. Hobsbawm, H. Pollins, W. Ashworth, J. Westergaard, W. Holford, y otros, *London: Aspects of Change* (pág. 342). London: London Macgibbon & Kee.

Goldenberg, S. M., Amram, O., Braschel, M., Moreheart, S., & Shannon, K. (2020). Urban gentrification and declining access to HIV/STI, sexual health, and outreach services amongst women sex workers between 2010-2014: Results of a community-based longitudinal cohort. *Health and Place, 62*(20).

Kern, L. (2009). Gendering Reurbanisation: Women and New-Build Gentrification in Toronto. *Population, Space and Place, 16*(5), 363-379.

Kern, L. (2012). All aboard? Women working the spaces of gentrification in Toronto's Junction. *Gender, Place & Culture: A Journal of Feminist Geography, 20*(4), 510-527.

Lees, L. (1999). The Weaving of Gentrification Discourse and the Boundaries of the Gentrification Community Synopsis. *Environment and Planning D: Society and Space, 17*, 127-132.

Lees, L. (2002). Rematerializing geography: the "new" urban geography. *Progress in Human Geography, 26*(1), 101-112.

Lees, L. (2008). Gentrification and Social Mixing: Towards an Inclusive Urban Renaissance? *Urban Studies, 45*(12), 2449-2470.

Listerborn, C. (2020). Gender and Urban Neoliberalization. En A. Datta, P. Hopkins, L. Johnston, E. Olson, & J. M. Silva, *Routledge Handbook of Gender and Feminist Geographies* (págs. 1-10). Londres: Routledge.

López, P., Rodríguez, A. C., & Escapa, S. (2022). Psychosocial effects of gentrification on elderly people in Barcelona from the perspective of bereavement. *Emotion, Space and Society, 43*.

López-Morales, E. (2019). State-Led Gentrification. En A. M. Orum, *The Wiley Blackwell Encyclopedia of Urban and Regional Studies.*

Maier, G., & Gilchrist, K. (2022). Women who host: An intersectional critique of rentier capitalism on AirBnB. *Gender, Work & Organization*, 1–13.

Markwick, M. C. (Mayo de 1995). Feminist Perspectives on Contemporary Inner City Neighbourhood Change: Gender and Gentrification in the London Borough of Hammersmith and Fulham (Tesis Doctoral). Roehampton Institute London: Department of Environmental and Geographical Studies.

Mills, C. A. (1989). *Interpreting gentrification : postindustrial, postpatriarchal, postmodern?* Vancouver : University of British Columbia .

Nuevo López, A. (2021). Turismo y gentrificaciónmetaanálisis en torno al problema. *Lurralde*(44), 161-183 .

Ortiz-Guitart, A., López-Gay, A., Sales-Favá, J., & Solana-Solana , M. (2021). La gentrificación desde una mirada de género: un ejemplo en Barcelona. *Ciudad Y Territorio Estudios Territoriales, 53*(210).

Patch, J. (2005). Fashioning Gentrification: The New Role of Women in Neighborhood Change. New York University ProQuest Dissertations Publishing.

Patch, J. (2008). “Ladies and gentrification”: New stores, residents, and relationships in neighborhood change. *Gender in an Urban World (Research in Urban Sociology), 9*, 103-126.

Pilgeram, R. (2019). “How Much Does Property Cost Up There?”: Exploring the Relationship between Women, Sustainable Farming, and Rural Gentrification in the US. *Society & Natural Resources, 32*(8), 911-927.

Quamie, N. (2019). *British Black Women and their relationship with gentrification: How do Black women’s relationships with Deptford/New Cross influence their experience of gentrification?* King’s College London.

Rose, D. (1989). A feminist perspective of employment restructuring and gentrification: the case of Montreal. En *The Power of Geography (RLE Social & Cultural Geography)* (págs. 118-138). Routledge.

Sakizlioglu, B. (2018). Rethinking Gender-Gentrification Nexus. En L. Lees, & M. Phillips, *Handbook on Gentrification Studies* (págs. 205-221). Edward Elgar.

Smith, N. (1979). Toward a theory of gentrification: A back to the city movement by capital, not people. *Journal of the American Planning Association, 45*(4), 538-548.

Smith, N. (2002). New Globalism, New Urbanism: Gentrification as Global Urban Strategy. *Antipode: A Radical Journal of Geography, 34*(3), 427-450.

Smith, N., & Hackworth, J. (Noviembre de 2001). The changing state of gentrification. *Tijdschrift voor economische en sociale geografie, 92*(4), 464-477.

Spain, D. (2014). Gender and Urban Space. *Annual Review of Sociology, 40*, 581-598.

Tilk, J. M. (1997). Women and gentrification : a case study of riverdale. Ottawa : National Library of Canada.

Ugarriza, N., & Gurrutxaga, M. (2020). Gentrifikazio prozesuen agerpenen azterketa. *Lurralde* (43), 219-236.

van den Berg, M. (2012). Femininity As a City Marketing Strategy: Gender Bending Rotterdam. *Urban Studies, 49*(1), 153–168.

Varol, H. (2022). Class, gentrification and emotions: an investigation into the everyday life experiences of poor women living in Urla, Izmir. *The Graduate School of Social Sciences*.

Warde, A. (1991). Gentrification as consumption: issues of class and gender. *Environment ond Planning D: Society and Space, 9*, 223-232.

Wright, M. W. (2013). Feminicidio, narcoviolence, and gentrification in Ciudad Juárez: the feminist fight. *Environment and Planning D: Society and Space, 31*, 830-845.

Wright, M. W. (2015). The Gender, Place and Culture Jan Monk Distinguished Annual Lecture: Gentrification, assassination and forgetting in Mexico: a feminist Marxist tale. *Gender, Place & Culture: A Journal of Feminist Geography, 21*(1), 1-16.

Ye, M., & Vojnovic, I. (2018). The Diverse Role of Women in Shaping Hong Kong's Landscape of Gentrification. *Urban Affairs Review, 56*(2), 368–414.